

## XXIV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

### Otoitza

Diren guztien egile eta nagusi zaren Jainko Jauna,  
 begira iezaguzu  
 eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea,  
 zure errukiaren ondasunak irits ditzagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 50, 5-9a

*Bizkarra ipini diet, jotzen nindutenei.*

Isaias Profetaren liburutik

Jaunak belarria ireki dit,  
 eta nik ez diot gogorrik egin; ez dut atzera egin.  
 Bizkarra ipini diet, jotzen nindutenei;  
 masaila, bizkarretik tiraka ari zitzaizkidanei.  
 Ez diet aurpegia saihestu irainei eta listuei.  
 Nire Jauna nuen laguntzaile;  
 horregatik ez nintzen lotsatu;  
 horregatik ipini nuen aurpegia, harri gogor bezala;  
 eta badakit ez naizela lotsagarri gertatuko.  
 Ondoan dut nire laguntzailea,  
 nork eraman ni auzitara?  
 Jar gaitezen aurrez aurre,  
 nork du nirekin auzirik? Datorrela!  
 Hara, nire Jauna dut lagun,  
 nork galduko nau?

ERANTZUN SALMOA: Sal 114, 1-2. 3-4. 5-6. 8-9

R/. **Ibiliko naiz Jaunaren aurrean,  
 biziaren lurrean.**

Edota **Aleluia.**

Maite dut Jauna, baitu entzuna  
 nire eskariaren oiartzuna.  
 Itzuli baitu nigana belarria,  
 dei egin diodan egunean. R/.

Herio-lokarriek inguratu ninduten,  
 Leizeko hedeak gainera zitzaizkidan,  
 nahigabe eta larrialdian erori nintzen.  
 Deitu nuen Jaunaren izena:

«Atera nazazu bizirik, Jauna.» R/.

Onbera da Jauna eta zintzoa,  
errukitsua gure Jainkoa.  
Jaunak gizagaixoak zaintzen ditu,  
dohakabe nintzen eta salbatu nindun. R/.

Atera baitu nire bizia heriotzetik,  
begiok malkotik, oinok erortzetik.  
Ibiliko naiz Jaunaren aurrean,  
bizien lurrean. R/.

II. IRAKURGAIA: St 2, 14-18

*Sinesmenak egintza onik ez badu,  
hilik dago.*

Santiago Apostoluaren epistolatik

Ene senideok: Zertarako du batek, «nik sinesten dut» esatea, egintza onik ez badu? Horrelako sinesmenak salba ote dezake?

Egin dezagun, anaia edota arebaren bat jantzirik gabe eta eguneroko ogirik gabe daudela, eta zuetako batek honela esaten diela: «Zoazte bakean, bero zaitezte eta ase»; gorputzerako beharrezko dutenik ematen ez badiezue, zertarako litzateke hori esatea?

Horrela gertatzen da sinesmenarekin: egintza onik ez badu, hilik dago bere baitan. Norbaitek esan dezake: «Zuk sinesmena duzu; nik, berriz, egintzak. Erakustazu zeure sinesmena, egintzarik gabea; nik, berriz, egintzetatik erakutsiko dizut neure sinesmena».

EBANJELIOA: Mk 8, 27-35

**Aleluia:** Ga 6, 14

R/. Aleluia.

V/. Jainkoak libra nazala harrotzetik,  
Jeskristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik.  
Gurutze horretan gurutziltzatua dago  
mundua niretzat, eta ni munduarentzat. R/.

*Zu, Mesias zara...  
Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, joan zen Jesus ikasleekin Filipoko Zesarean dauden herrisketara, eta bidean honela galdetu zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?» Haiiek erantzun: «Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste batzuek, Elias; besteek, berriz, profetaren bat». Hark orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?» Eta Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara».

Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta erakusten hasi zitzaizen: «Beharrezkoa da Gizonaren Semeak neke handiak jasatea: zaharrek, apaiz nagusiek, eta idazlariek oartzetsi egingo dute eta hil; baina hirugarren egunean biztuko da». Eta horrela, argi eta ;

Orduan Pedrok, bereiz harturik, haserre antzean erantzun zion. Jesusek, itzulirik eta ikasleei begira, haserre egin zion Pedrori: «Ken zaitez nire aurretik, Satanas! Zure gogoetak ez baitira Jaungoikoarenak, gizonarenak baizik».

Eta jendea eta ikasleak batera deiturik, honela esan zien: «Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia Niregatik eta berri onarengatik galtzen duenak, salbatu egingo du».

### **Oparigaien gainekoa**

Bihotz onez entzun, Jauna, gure eskariak  
eta onartu zeure zerbitzarien eskaintzak;  
bakoitzak zure izena gorestekoa eskaintzen duena,  
denen salbamenerako izan dadila.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jaunartze honen grazia, Jainko Jauna,  
gure gorputz-arimen jabe egin dadila,  
geure nahiak ez,  
baizik eta grazia honen indarrak agindu dezan gure bizitzan.  
Jesu Kristo.